

Hiru egiak

Ixabel Millet-ek kontatua

Behin batean, behin lana bukatua, menditik etxera jaitsi ziren artzainak haien puskak harturik, baina afaria prestatzeko tenorea heldu zenean, grila etxolan ahantzirik utzi zutela ohartu ziren.

Inorrek ez zuen gauaz mendietan ibili nahi. Denak beldur ziren gaua baitzen jeinuen erreinua, Gauekoren erreinua.

Baina haien arteko ausartena, haren adorea bilduz, gauak gauari grilaren xerka joan zen mendian gora.

Etxolara heltzean, tximiniatik kea zeriola ikusi zuen. Orduan, emeki-emeki sartu eta, su ondoan jarriak, Basajaun-Basandereak atzeman zituen. Orduan Basajaunak galdegin zion:

- Nora heldu zara?

- Grilaren xerka heldu naiz. -erantzun artzainak, izaturik.

Baina Basajaun eta Basandereak ez zuten hain errazki joaten utzi nahi ukan. Beraz, horrela galdetu zion.

- A, bai! Beno. Hiru egia erraten badizkiguzu ukanen duzu grila.

Artzaina gogoetan gelditu zen, eta handik gutira erran zuen:

- Hau gau ederra, zinez! Ilargipean, gaua eguna bezain argia dela erran dezakete batzuek. Ez, sekula ez! Gaua ez da inoiz eguna bezain argia izaten.

- Horra egia bat. -erran zuen orduan Basajaunak, kontent.

Pixkat pentsatu zuen artzainak eta bigarrena bota zuen:

- Belea herioa bezain beltza dela erraten dute batzuek. Ez, sekula ez! Herioa askoz ilunagoa da, bera baita iluntasuna.

- Ederki! Horra beste egia bat. -gaineratu zuen Basandereak. Orain, azkena.

Aurrez pentsatua balitzan, artzainak erran zuen:

- Hona hemen hirugarrena. Nik jakin ukan banu gaur zuek hemen zinetela, ez nintzen ni hona etorriko.

Orduan, begi jostakin, Basandereak eta Basajaunak erran zioten:

- A, ederrrrrrra! Hori egia da. Egia borobila. Tori grila. Orain, zoaz lasai.

Ezer gehiago galdetu gabe, artzainak grila eskuratu eta, arin-arin, hartu zuen herrirako bidea. Ilargi segituz, gauaren Damaren argia segituz, etxera heldu zen arazorik gabe.